

Ana Mari Murua
Ordizia, Gipuzkoa

Aurkibidea

Biografia

Zintak

ORD-021

- **Proiektua:** Ordiziako euskara
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxabe, Karmele - Garmendia, Larraitx
- **Data:** 2004-02-20
- **Iraupena:** 50 min
- **Euskarria:** Mini Disc
- **Kodifikatzailea:** Otegi, Aitziber
- **Transkribatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Emalea:** Ordiziako Udala

Pasarteak

1. Ordizian jaioa 1930ean

- **Erref:** ORD-021/001

- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:01:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Ordizian jaio zen 1930ean. Ama Ataungo Aia auzokoa eta aita Zaldibiakoa zituen eta senarra ordiziarra. 5 seme-alaben ama da.

2. Eskolan mojetan eta Karmelitetan

- **Erref:** ORD-021/002
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:01:05. **Bukatu:** 00:01:58
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

11 urtera arte ibili zen eskolan, Ordiziako mojetan eta Karmelitetan. Dena gaztelaniaz ikasten zuten eta lagunartean ere hala egiten zuten.

3. Murua tabernaren jabe

- **Erref:** ORD-021/003
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:01:58. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

Santa Maria kalean Murua taberna zuten Ana Mari eta etxezoek. Tabernaz gain ostatua ere bazen Murua. Azoka egunez lan asko izaten zuten.

4. Inguruko eta Nafarroako jendea azokara saltzera

- **Erref:** ORD-021/005
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:04:00. **Bukatu:** 00:05:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Orduko asteazkenetako azokara ganadu ugari eramaten zen. Goierri inguruko jendea eta Nafarroatik ere inguratu ohi zen. Altsasu aldeko lagun batzuen aipamena egiten du.</p>

5. Kalean euskaraz hitz egiteko beldurrez

- **Erref:** ORD-021/006

- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:05:30. **Bukatu:** 00:06:43
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Kalean euskaraz egiteko beldur handia zegoen, debekatua baitzegoen, eta Ana Marik ere lagunekin gaztelaniaz egiten zuen etxean euskaraz mintzatzen bazen ere.</p>

6. Senideei gaztelaniaz irakasten

- **Erref:** ORD-021/007
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:06:43. **Bukatu:** 00:07:40
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

<p>Udaran amaren jaiotetxera joaten ziren Ataungo Aia auzora autobusez eta izeba batek erdaraz erakusteko nola eskatzen zion aipatzen du. Gurasoek nola ezagutu zuten elkar azaltzen du.</p>

Transkripzioa

- Pentsa nere aman familie Aiakoa zan. Ta juten giñen oporrak pasatzea harutza. Ta nere izebak akordatzen naiz esaten zitela “baiña neri erderaz in e? Ikasi in nahi det erderaz ta”.

- Klaro.

- Bai, “opari bat emango dizut, eta neri...”

- Erderaz.

- “Erderaz in”.

- Ze juten ziñaten udan, bakaziotan?

- Udan.

- Ta zuentzat nobedadea izango zan, ala?

- Gustoa ibiltzen giñen han. Oso gustoa.

- Ta nola juten ziñeten Aia?

- Ba autobusen uste det. Ez naiz akordatzen oain. Bai...

- Ataunea igual autobusa eongo zan.

- Bai, nere aita ezautu zun ama... nere aita zan agoza, ta jun zan hauntza etxea itea.

- A bai e?

- Erre in zitzaien ta etxea itea. Eta ordun ezautu zun gure ama, ta hua oiñez juten zan Zaldibitik, oiñez batzutan, eta beste batzutan bizikletan.

7. Gripe izurritearen ondorioak

- **Erref:** ORD-021/008
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:07:40. **Bukatu:** 00:08:51
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Lanbideak » Arotzak

Laburpena:

Aitona praktikantea zuen eta Zaldibiara joaten zen. Amona Itsasondokoa zen. Gripe izurritearen garaian aitaren senide batzuk hil ziren. Aitak Etxeberria lantegian ikasi zuen arotz.

Transkripzioa

- Esan dezu aitte, bueno aittona, praktikantea zala.
- Bai, Beheko Aiakoa zan.
- Eta Zaldibia etortzeko, hoi ze ingo zan, sortez o tokauko zitzaion o hola...?
- Bai, seguraski. Ta gero ezautu zun nere amona, zan Sarasola, Itsasondokoa, ezkondu zien ta...
- [...]
- Bai. Eta izan zien nere aita ta hamaika, hamaika senide. Baiño ordun, ez dakit, beste izan zan gripe garaie, hil zien zortzi senide o beatzi hil zien.
- Bai e?
- Geatu zien bi bakarrik.
- Joe, ta hoi aitte praktikantea izanik.
- Bai. Orduako hilda zala uste det aitte e? Bai.
- Eta iñok, bueno, biziik geldittu zienenetatik ez zon praktikante ikasi, aittek bezela?
- Ez, ez, nahiko lana izan zuen aurea ateatzen.
- Ta zure aittek ba al dakizu nun ikasi zun arotz-ofizioa eo?
- Ez dakit, hemen Etxeberrian taillerren. Etxeberria ta lztueta. Bai, zan beti, nik hor ezautu nun.

8. Tabernan zerbitzari lanetan

- **Erref:** ORD-021/009
- **Iraupena:** 0:02:29. **Hasi:** 00:08:51. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Gurasoek taberna hartu zutenekoa azaltzen du. Ana Mari zerbitzari lanetan aritzen zen tabernan. Baratzeta izan zuten eta amak egiten zuen lan bertan. Taberna zen Ana Mariren etxea, eraikin berean zeuden eta.

9. Eguneroko otorduetan zopa eta eltzekoa

- **Erref:** ORD-021/010
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:11:20. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Eguneroko otorduetan zopa eta eltzekoa jan ohi zuten, igandeetan oilaskoa eta postrea izaten zen nobedade.

10. Arropa garbitzera labaderora

- **Erref:** ORD-021/012
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:15:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Arropa eskuz garbitzen zuten. Taberna ostatua ere bazenez, amak haien arropa garbitzeko egosi egiten zuen eta gero labaderora joaten ziren. Ordiziako labaderoak. Ekonomikan berotzen zen plantxa erabiltzen zuten. Lurra alanbrez igurtzi eta ondoren ematen zioten argizaria. Astean behin egiten zuten garbiketa.

11. Txerria hildakoan odolki eta mondejuak

- **Erref:** ORD-021/013
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:15:45. **Bukatu:** 00:17:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Txerria etxean hiltzen zuten eta amak mondejuak eta odolkiak egiten zituen. Osaba harakina zuten eta hark laguntzen zien. Etxe azpian bodega bat zuten eta bertan oilo eta txerriak izaten zituzten. Pasadizo bat kontatzen du.

12. Bi jaunartze, zazpi eta hamaika urterekin

- **Erref:** ORD-021/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:17:56. **Bukatu:** 00:20:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Bi jaunartze egin zituen zazpi eta hamaika urterekin. Ospakizuna etxean egiten zen. Ahizpa zaharrenarentzat egindako jantzia erabili zuten ondorengoek. 22 urterekin ezkondu zen Ordizian eta Olaberrian egin zuten bazkaria. Madrilera joan ziren ezkonbidaian. Ama ezkondu zeneko kontuak kontatzen ditu.</p>

13. Gerra zibila hastean, Zaldibiara aitarekin

- **Erref:** ORD-021/016
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:20:05. **Bukatu:** 00:23:09
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Tabernan ibiltzen zen jende gehienak euskaraz egiten zuen. Gerra zibila hasi zenean, Ana Marik bederatzi urte zituela, Zaldibiara joan ziren Xorronbehe baserrira aitarekin oinez, aitaren lagunak baitziren bertakoak. Tiroak nola entzuten zituzten azaltzen du. Gerra amaitu zenean, etxera bueltatu ziren.</p>

14. Gerra ondorengo giro politikoa

- **Erref:** ORD-021/017
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:23:09. **Bukatu:** 00:25:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra ondorenean ez zuten goserik pasa tabernari esker. Orduko egoera politikoa azaltzen du. Neskamea hil zutenekoa kontatzen du.

Transkripzioa

- Eta geo gerra ondorena ta hola goorra izan zan?
- Bai, gosea. Guk ez gendun pasa goseik, zeatik hemen tabernan beti genduken...
- Jatekoa.
- Bai.
- Eta gero politikoki, ba ez dakit, tensioa o hola zeon?
- Baita. Baita. Oain historia repetitzen ai da e?
- Bai, bai.
- Ordun karlistak, eta nazionalistak.
- Eta burlak eta holako gauzak bai ezta?
- Bai, bai.
- Eongo zian ezta?
- Bai, bai. Karlistak zeren pixkat...
- Harrotuta, iyota.
- Bai, ni akordatzan naiz, kalen pasatzen zienen margaritak, aittuko zenduen, txapel, txapel gorrikin ta...
- Emakumeei?
- Emakumek bai.
- Baiña hoi zer zan, kongregazio bat bezela o... ez zan elizakoa?
- Ez dakit. Ez, ez, elizakoa ez, aparte. Bai, kalen pasatzen zien "con un"... harrotuta erabat.
- Haik irabazlek zien ta! Betikoa.
- Bai. Baiña ze mentalidadea ezta?
- Bai, egie da. Batzuk gaizki pasako zuen ordun gerran.
- Bai. Oso gaizki. Bai, guri neskame, este, hil zioten balkoi hontan.

- Neskame bat?
- Lazkaomendikoa.
- Bai e?
- Bai, ordun ez zeren etxe hok, etxe gorrie zeon, ta han zeren nazionalak, eta atera zan erropa jasotzea. Nere aitak esaten ezetz, "ez iyo, zeatik han dare". Gañea illuntzea zan, illuntzen ordun, eta bueno, jo in zuen. Eta hil zan, ordu batzuk eon zan biziik.
- Eta hil zuen ze, peligrosua izango zalakon eo...?
- Bai, ba, ta gero konturatu zienen gu giñela, nere aita gañea etorri zan jasotzea, eta bueno etorri zien esanez ba nola okurritu zitzaion momentu hoietan balkoira ateratzea.
- Ya, baiño.
- Baiño.
- Baiño hua hil in zan. Bueno, hil in zuen.

15. Sokasaltoan eta diabolarekin jolasean

- **Erref:** ORD-021/019
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:26:18. **Bukatu:** 00:29:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetan, sokasaltoan eta diabolarekin jolasten zuten, besteak beste. Gaiztakeria batzuk aipatzen ditu. Izeba batek oparitzen zizkien trapuzko panpinak. Ordizian bi jostailu-denda zeuden.</p>

16. Santa Ana jaiak

- **Erref:** ORD-021/021
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:31:03. **Bukatu:** 00:32:13
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak

Laburpena:

Santa Ana jaien aipamena egiten du. Frontoian berbena izaten zen eta Ana Mari tabernan aritzen zen lanean.

17. Ordizian taberna ugari zegoen

- **Erref:** ORD-021/022
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:32:13. **Bukatu:** 00:33:15
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Aisia » Kultura » Irakurtzea

Laburpena:

Egunkaria egunero hartzen zuten tabernan. Ordizian taberna ugari zegoen; kafetegi bat aipatzen du.

18. Barrenako Markesa

- **Erref:** ORD-021/023
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:33:15. **Bukatu:** 00:34:22
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Barrenako Markesa eta hauek egin ohi zituzten festak aipatzen ditu.

19. Oiangu, San Bartolome, Larraitz eta San Migelgo erromeriak

- **Erref:** ORD-021/024
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:34:22. **Bukatu:** 00:37:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

Oianguko eta San Bartolomeko erromeriara joaten ziren eta dantza egiten zuen soinu-jolearen piezekin. Larraitzera eta San Migelera ere joan ohi ziren oinez erromeriara. Mutil-lagunarekin hasi zeneko kontuak. Izeba batek taberna zuen Beasainen eta hara joaten zen zerbitzari lanetan laguntzera festetan.

20. Euskara lehen eta orain

- **Erref:** ORD-021/026
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:37:27. **Bukatu:** 00:40:45
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Gaur egungo eta lehengo euskararen erabilera aipatzen ditu. Hika amak bakarrik hitz egiten zuen; Ana Marik zuka egiten zuen. Inguruko herrietako euskara eta Ordiziakoaren arteko ezberdintasunak. Telebistako euskara.

21. Sendabelarrak

- **Erref:** ORD-021/027
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:40:45. **Bukatu:** 00:42:50
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

Etxean sendagai modura erabiltzen zituzten sendabelarrak aipatzen ditu.

22. Emakumeak gizonen esklabu

- **Erref:** ORD-021/028
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:42:50. **Bukatu:** 00:43:46
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak gizonezkoen esklabu ziren askotan, dena eginda eman behar izaten zitzairen etxean.

23. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen

- **Erref:** ORD-021/030
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 00:45:33. **Bukatu:** 00:47:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Mutil-lagunarekin hasi zenean hamabostean behin ateratzen zen eta denbora luzean lagunak eta mutila ikusi gabe egon behar izaten zuen. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen, plazan egon ohi ziren banda entzunez.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-02-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com